


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,3 jaitsi dira 2020ko maiatzean aurreko hilabetearen aldean

Aurreko urtearekin alderatuta (2020ko maiatza 2019ko maiatzaren gainean), kostuak % 1,2 igo dira

Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea % 0,3 jaitsi da 2020ko maiatzean, aurreko hilabetearekin alderatuta; hilabete horretarako urte arteko tasa, berriz, % 1,2 igo da, Eustatek emaniko datuen arabera.



Aurreko hilabetearekin alderatuta, lehengaien kostuak % 0,4 jaitsi dira, eta eskulanaren kostuak ez du aldaketarik izan (% 0,0).

Maiatzean Etxegintzaren azpisektoreak % 0,4ko beherakada izan du lehengaien kostuan hil artean, eta Obra Zibilaren azpisektoreak, berriz, % 0,2koa. Urtetik urterako bilakaeran, bi azpisektore horiek zeinu desberdinak dituzte; izan ere, Etxegintzaren lehengaien kostuak % 1,4 igo dira, eta Obra Zibilarenak, berriz, % 0,7 jaitsi dira.

Sektoreak kontsumituriko lehengaien prezioetatik, 2020ko maiatzean 2019ko maiatzarekin alderatuta hazkunde handienak izan dituztenak honako hauek dira: *Mineral ez-metalikoak* (% 5,7), *Zurgintza* (% 1,9) eta *Material elektrikoa* (% 1,6). Aitzitik, lehengaien prezioetan

beherakadak izan dituzte hauek: *Petrolio*a fintzea (% 37,1 behera), *Energia elektrikoa* eta *gasa* (% 6,6) eta *Metalurgia* (% 3,1).

EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2020ko Maiatza

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	106,2	-0,3	1,2
Eraikinak	106,4	-0,3	1,5
Obra zibila	105,4	-0,2	-0,1
LEHENGAI	105,6	-0,4	1,0
Eraikinak	105,8	-0,4	1,4
Obra zibila	104,6	-0,2	-0,7
LAN-ESKUA	108,2	0,0	1,8

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

COVID-19AREN KRISIAK MAIATZEKO EKI-N DUEN ERAGINARI BURUZKO OHARRA

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu du **COVID-19**ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko.

Une horretatik aurrera hartutako salbuespenezko neurrien ondorioz, sektoreko enpresa asko partzialki edo osorik geldiarazi dira.

Egoera horrek ekarri du Eraikuntzaren Kostuen Indizea egiteko behar den informazioa lortzeko beharrezko ahalegina handitu izana, hala inkestatutako enpresen aldetik nola informazioa biltzeaz eta tratatzeaz arduratzen diren langileen aldetik.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten enpresa guztiei egindako ahaleginagatik aparteko baldintza hauetan. Haiei esker, maiatzeko indizea kalkulatu da industriaren prezioen indizeetarako eta eraikuntzaren kostuetarako erabilitako laginaren % **98,63ko estaldurarekin**.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62